

2020ko uda

| | | |
|----------------------|---|---|
| Euskara maila | A1.2 - A2 | Barnetegira joan ahal izateko A1.1 maila eginda eduki behar da (130 eskola-ordu inguru). |
| Asmoa | Egun hauetan, goizetan, 4 eskola-ordu emango ditugu eta, arratsaldetan, ikasi duguna praktikatzeko eskualdea ezagutuko dugu: mendi-irteerak egingo ditugu, bisita kulturalak, tailerrak... | |
| Datak | uztailaren 25etik abuztuaren 2ra. | |
| Lekua | Arantza (Nafarroa) | Arantzako aterpea: www.arantza.net |
| Prezioa | Ez bazkideek: 395€ Bazkideek ⁽¹⁾ : 335€ | Matrikulan eskolak, egingo diren ekintzak eta aterpea (gosaria, bazkaria, afarria eta "litera") daude sartuta; joan-etorriak ez, ordea. |
| Izen ematea | Apirilaren 1etik maiatzaren 29ra. | |
| Oharrak | - Behar izanez gero, antolatzaileek barnetegirako antolatutako ekintzak aldatzeko eskubidea izango dute. - Taldea sortzeko, gutxienez 6 ikaslek eman behar dute izena. - Aterpearen beharrek lekua mugatu ahal dute, matrikula lehenbailehen egitea komeni da. - Ikasleak baja emanez gero, barnetegia hasi baino 3 aste lehenagotik aurrera (ekainak 22), ez dugu matrikularen dirurik itzuliko. | |

(1) Bartzelonako Euskal Etxeko bazkideak.

Nola matrikulatu

Euskal Etxean bertan (egin behar baduzue, mailaketa probaren eguna aprobetxa dezakezue):

1. Idazkaritza-ordutegia: 10:00-13:00 eta 15:00-17:30 astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 93 310 22 00
2. Ondo irakurri informazio-orria.
3. Matrikula-orria bete (datuen bat falta bada, matrikula-aldiko azken eguna baino lehen eman behar da)
4. Matrikula ordaindu. Transferentzia bidez ere ordain dezakezue, edota edozein La Caixa-ren bulegotara joanda. Horretarako, segi itzazue "**Internetez**" aukerako 4. puntuko pausuak.

Internetez:

1. euskarabcn@euskaletxeak.org e-postara mezu bat idatzi matrikulatu nahi duzula esanez. Informazio-orria eta matrikula-orria jasoko dituzu e-mail baten bidez.
2. Irakurri ondo informazio guztia.
3. Matrikula-orria zure ordenagailura jaitsi eta bete (datuen bat falta bada, matrikula-aldiko azken eguna baino lehen eman beharra dago).
4. Matrikula La Caixa-ko Euskal Etxearen kontu honetan ordaindu: ES56 2100 1089 7002 0003 9109. Kontzeptuan "euskara + izen-abizenak" jarri, nork ordaindu duen jakin dezagun. Agian diru-sarreraren egiaztagiriaren kopia eskatu beharko dizugu; beraz, gorde ezazu ondo.
5. Matrikula-orri bete e-postaz bidaliezaguzu eta e-posta berean ordainketaren data esaguzu, horrela gure administrariak ea akatsik egon den konprobatuko du.

Barnetegiaren funtzionamendua

ordutegia

| | |
|----------------------------|----------|
| 08:30-09:00 ⁽¹⁾ | Gosaria |
| 09:00-11:00 | Eskolak |
| 11:00-11:30 | Atsedena |
| 11:30-13:30 | Eskolak |
| 14:00-15:00 | Bazkaria |
| 16:00-19:00 ⁽²⁾ | Irteera |
| 21:00... | Tailerra |
| | Afaria |

⁽¹⁾ Igandeetan ordu erdi edo ordubete beranduago gosaltzen da.

⁽²⁾ Gutxi gorabeherako ordutegia. Irteera hauetan gastatuko dugun gasolina denon artean banatuko dugu barnetegiaren bukaeran. Taldearen dinamika ez apurtzeko, beharrezkoa da tailer edota irteera hauetan parte hartzea (mendi-irteeran ere, beti ere ikasleak ez badu osasun arazorik). Senide, lagun edo antzekoen bisita edukiz gero; bisita horiek ez dute talde-dinamikan eraginik eduki behar.

Lehen egunean (uztailaren 25ean) bazkaltzeko orduan egon behar dugu, eta azken egunean (abuztuaren 2an) gosalduta ondoren aterako gara aterpetik.

Den-dena euskaraz hitz egiten saiatu behar dugu, horretara goaz! Hitz bat ez badakigu edo gogoratzen ez badugu, hitz katalanari "a", "ak" edo "tu" jarri bukaeran eta aurrera!

Aterpearen antolaketa

Guk paratu behar dugu mahaia. Horretarako, lehen egunean taldeak eta txandak antolatuko ditugu.

Ohatzetan ("litera"tan) lo egingo dugu gela baten edo bitan (8 laguneko gelak daude, 16koak...) Norbaitek bakarrik lo egin nahi badu, aterpean badago gela bat alokatzeko aukera; estra bat ordaindu behar da eta aurretik esan, gela guztiak bete baino lehen.

Joan-etorria Arantzara

Beti saiatu gara elkarrekin joaten: auto berean 3-4 ikasle joan eta gastuak banatu. Auto batzuk eramatea interesatzen zaigu, arratsalde batzuetan programatzen ditugun irteerak egin ahal izateko. Joan-etorria antolatzeko, Bartzelonako eta inguruetako ikasleek matrikula-orriaren beheko aldean dagoen koadroa bete behar duzue. Beste lekuetatik zatozten ikasleen artean, inguru bereko ikasleak bazaudete, guk jarriko zaituztegu harremanetan zuek antolatu ahal izateko.

Arantzarako bidaia-gastuak banatzeko, gidariak bidesarrietan eta gasolinan zenbat gastatzen duzuen begiratu behar duzue. Gasolina kopurua jakiteko, oso metodo ona da gasolina-ontzi betearekin irtetea eta Arantzara iritsi ondoren berriro betetzea. Han ordaintzen dena da gastatutakoa.

Bidesariak gidariak edo beste pertsona batek ordaindu ahal ditu. Hala ere, komenigarria da guztiak lagun berak ordaintzea; horrela, gero, errazagoa izango da kontuak egitea.